

BELDUR NAIZ

PATXI EZKIAGA LASA

BELDUR NAIZ

FELIPE ARRESEBEITIA SARIA, 1984

Euskaltzaindia
Bizkaiko Aurrezki Kutxa

© JOSE IGNACIO ANSORENA

© BIZKAIKO AURREZKI KUTXA

Buenos Aires, 4- 1.º
48001 BILBAO

ISBN: 84-7231-967-9

D. L.: BI- 1698 - 85

Fotokonposaketa: Ipar, e.k.

Particular de Zurbaran, 2-4
48007 Bilbao

Imprimatzaile: Editorial Ellacuría, s.a.l.

Ribera de Erandio, 19
Erandio (Vizcaya)

BELDUR NAIZ

Mugagabeko bidetik noa
ertzagabeko itsasora,
aparrik gabeko hondartzara
bustidura gabeko uhainetara
hondar gabeko eremura.
Eta beldur naiz.

Bakardadearen hatzapar zorrotzek
haragiak urratu dizkidate,
eta oihu etengabe batez
izoztu zaizkit bihotzeko
odol koloregabeak,
hosto gabeko larrosak,
arantza gabeko osinak,
eztenik gabeko arantzak.
Eta beldur naiz.

Ez dut barkerua ezagutzen
eta ur beltzetan begiratzen den
txalupak ez du motorrik,
ez du arraunik, ez du
beletan haizearen musurik.
Segalarien itzal luzeak
murgildu nau eta ihitaiaren
hots isilla deika datorkit.
Eta beldur naiz.

Bizitza maite dut, mendian
trumoiaren zurrunbiloak
eta tximistaren argi urdinek
inguratzen nautenean
estalpe desiragarria,
euriaren ezpain haragikoiak,
ihintza paregabearen
kolore sinpleak, lotsatiak.
Eta beldur naiz.

Gizona maite dut, lanean
bihotzeko lurrak etengabeko
itxaropen luze batez
jorratzen saiatzen dena;
bere semeen aita, emaztearen
eguneroko senarra,
galdezka, galdezka
erantzuna nahi lukeena.
Eta beldur naiz.

Poeta maite dut, historiari
tantoka geroa lapurtu
nahi diona, tiroka
bizitzari ahalak luzatu
nahi dizkiona, poeta
gizona, biharkoa, gerokoa,
lurra maite duena,
poeta eskatologikoa.
Eta beldur naiz.

Haurra maite dut, aurpegian
ikara, zoriona eta kezka
adierazten duena, ezezagunari
irekirik dagoen leihoa,
beso ahul zabalak,
magale beharra, esku
hestutuak eta irrifarraren
ondogabeko urak.
Eta beldur naiz.

Ametsa maite dut, ametsa,
ezin neurtu, ezin pixatu
ezin ikusi; asmatu leikeena,
maitatu daitekeena,
ametsa maite dut, ametsa,
etengabea, garbia, biharko
etorkizunari dagokion
nik egin dezakedan ametsa.
Eta beldur naiz.

Euria maite dut, euria,
aurpegi gazteak urratzen
eta edertzen dituen;
hibaiaren sabelak hazi
eta mendiko belar xumeak
mantsoki mozkortzen dituen;
euria maitea, arrunta,
lainoen lehen emaitza.
Eta beldur naiz.

Lurra maite dut, lurra,
itxaropen guztien neurri bakarra,
nire udazkeneko
lore horixken egurenoko bazka,
nire nortasun honen
karezko azken seaska,
etorkizunaren ritmoa,
nire jainkoaren zeru hotza.
Eta beldur naiz.

Esperantza maite dut,
nire haragi hilkorak usteltzen
direnean nire
gizatasunari heutsi eta
iraunkortasun bat emango dion
dasta ezin dudana fedea. Lurrari
josten nauen oinarria, Herria
luzatzen duen azken asmoa.

Eta... mugagabeko bidetik noa
eten gabeko itsasora,
aparririk gabeko hondartzara,
bustidura gabeko uhainetara,
hondar gabeko gerora.
Baina beldur naiz.

MUGATUA

Udazkenaren ohe ertzean etzan naiz
usapalaren haragiaren dardara
ene esku izutietan
ito nahian,
bizitz aroko ezpain ihatuen
antsia luzatuen ikara
ene begi uzkurretan
laztandu irrian.

Neskatxa biluztuaren lotsak
erre dizkit melankoliaren arragoan
ene gaztearo joanaren
izan ez diren ametsak,
ilunabar hodeitsuaren hotzak
urtu dizkit tristeziaren eltzean
ukazio bakoitzaren
malko mingotsak.

Milaka litezkenaren itzalak
eten dizkit segurantza erreinuko gazteluan
aukera baztertuen
zorionaren kateak;
agian itxaropentsuaren ilusioak
erahil dizkit ene bihotzeko aretoan
azti zaharraren
ezinezko usoak.

Ai ene, ai ene, ai ene,
zergatik edo zer ote
mugatua, mugatua, mugatua
izatea...
ai ene, ene, ene maite
zergatik ezin zorionaren
kaikua
betirako bete, bete, bete...?

OI ZU, HERIOTZ!

Ontzia kulunkatzen duen
uhaina
beldurak eragina,
mugagabeko ertzetako
aparra irrika
duena,
haragiaren eztenak
daroan antsia
hilkorra
dadana...

Lema asaldarazten duen
eztena,
arantza eta lorezko
pozoiez mozkortua
desio ezkutuak
daraman
amets ezinezko
lo motz eta bihurrien
altzoan
datzana...

Lemazainaren esku itsatsien
dardara,
kresalaren ezpainetatik
tantoka darion
heriotz izeneko
ardo mingotsa,
bihotzeko tolaleari
gainezka doakion
gero ilunaren
itzala...

Oi zu, anai ta arerio!
ortzadar
guztien azken peajea,

zauri ororen azken
zornea,
oi zu, maitari guztien
azken emaztea,
oi zu, ene eguneroko
heriotz
hilezkorra...

HORBELAK EZ DU HITZIK ESATEN

Baina...
horbelak ez du hitzik esaten...

Udazkenak murgildu nau
bere uhin marroi horixketan,
hosto askatuaren dantzak horditu nau
haize-kolpeen ritmoetan.
Udazkenak laztandu nau
bere urritasunaren emaitzan,
erditutako emearen sabel lauak
ferekatu nau magal bilutsean...

Marruka galdegin diot
«Muga dakusat,
uztargia urrun zegok...
joatea onartu behar al diat...
itzulera hain al duk ezinkor?»

Baina...
horbelak ez du hitzik esaten.

Ilunabarreko iguzkiaren azken izpiak
babesten dizkit ene bihotz
erromesaren taudapak. Ene maiteñoaren
esku epelak elikatzen dizkit
ene begi asekaitzen
keinuak, bere irriñoen
emari zintzoak
nahi ta ezinaren dardara sakonak...

Itzalari deihadar diot
«Iheska hoakit,
ezin haut eutsi,
irrifarra dadak...
argiaz maitemindu bahaiz
zergatik azkenik laztantzen duk
hilik, zergatik, zergatik?»

Baina...
horbelak ez du hitzik esaten...

Bideari ekingo diot
maitearen eskutik
epeka, pausoka
udazkenak bezala
ezina saminaren
bizkar hezurretik...

ASKI

Aski hondamenaren igarleak
ahoa zabalik
ukabila zutik
ai, ai, ai ene!
ai hi, putaseme!
ene, jota gaude!
begirada iluna besterik
ez dutenak.

Aski heriotzaren getariak,
ezkutaturik,
patrikak beterik
ostiaka ta mekauenka
besteren ilusioak
lapurtuak
konsideratzen dituzten
panfletariak!

Aski esperantzaren ebasleak,
mugaturik
lur eta harri
bakarrik garelakoan
begiurdin guztiak
ilundu nahi dituzten
hiltzaile madarikatu
ixilak!

Aski engainatuen askatzaileak!
ez besteren argirik
bera soilik
onartzen ez duten
fenomenoak!
eritzi bakarren,
zapalduen ahotsaren
fabrikanteak!

Aski herriaren gidariak!
artalderik
gabe, lurrik
jorratu gabe,
artzain eta laborari
ororen oihu ta oihartzun
bakarra direla
uste dutenak!

CHICK COREA-ren jazz entzutean

Itzala harrapatu nahi dut,
begiak hertsirik
hilberriak luzatzen dizkidan
pagoaren edertasun joanaren
adar bilutsena,
haizeak zorabiatzen dituen
azkeneko hortentsien
usain lizunena.

Itzala nereganatu nahi dut,
bideko lurrean,
espazioko zuhaitzetan
nire hatzapar luzatuek
uki eta fereka nahi luketen
gaueko neskatxaren
beso altxatuen
antsia asezinean.

Itzalaz horditu nahi dut,
saxoaren melankolia tristeaz,
piano izerdituaren
ebokazio urrutiaz,
bateriaren erritmo ankerraz,
emagalduren taberna zaharretako
ilusio iragankor saltzaileen
usain merkeaz.

Itzal pekatariaren forma borobiletan
murgildu nahi dut,
strip sesioetako aurreko
mahaietako Heinecken
aparrean, gizon pobreen
begirada lotsatian,
mila koloretako argiz
margotutako haragi gizarajoan.

Gaueko itzala izan nahi dut,
amestia hilberrian,
hilberan izutia;
itzala ninteke, ai ene,
esku gurutzatuena,
karminez loitutako
tabako rubioaren kearena,
gizaki xume oorena.

HAIZEARI HEGOAK...

Haizeari hegoak lapurtu nizkion
eta uztargiren ertzetaraino
abiatu nintzen, abiatu
urre kaikukadaren bila.

Uztargiari koloreak mailegatu nizkion
eta espazioaren mugetaraino
jo nuen, jo
izar hautsen bila.

Espazioari bere historia kendu nion
eta ene izatearen sustraietaraino
hurbildu nintzen, hurbildu
nire bila.

Izateari ZU-a alboratu nion
eta heriotzaren arrazoietaraino
etorri nintzen, etorri
jadanik hila.

Heriotzari galdegin nion
eta segaren muturretaraino
eraman ninduen, eraman
erailearen bila.

Eta segak erantzun zidan horrela:
«Hilketa orotan, oraindaino,
Ni-a zegok oinarri, NI-a;
hago erne, lagun, hiltzaile
bihur ez hadila!!!»

PARADISU GALDUARENA

Hasierara itzuli nahi dut,
Jainkoak gizonak
ilargi eta eguzkizko seaskan
kulunkatzen zituen
aurreneko egunetara.

Bizitzara itzuli nahi dut,
adjetiborik gabe
gizona gizon hutsa
zen ilusioetako urte
galdu izkutueta.

Poesiara itzuli nahi dut,
antzinako begi urdinen
garbitasun gardenera,
oihu eta marru egiten ziren
misterizko desioetara.

Sinpleziara itzuli nahi dut,
kredo, teoria eta ideologiarik
gabeko aire, su eta urezko
paradisu zaharrear
galdutako lurretara.

Haragira itzuli nahi dut,
osotasun hilezkorra den
izate betera,
sofismarik gabe maita dezakedan
amodio garbi, sortzailera.

Bustinera itzuli nahi dut,
definitzen eta mugatzen gaituzten
uste hestu eta tristerik
gabeko lehenengo udazkeneko
izan nahi nukeen gizonarengana.

SI, CHICA!

«Sí, chica», zutaz pentsatzen dut,
iraganaren kirats goxo eta fetidoa
dariozun horretaz;
amets inbertituen hilerrian usteltzen
ari zaren Chica Nostalgiaz, zutaz.
Heriotza naturalez hil nahi ez duzun
satinezko mamu beltza,
emakumetasun ahul eta alferrikakoan
loratu den paper merketako
krabelina,
arraultza ustelduaren
txuria. Zutaz.
Zutasuna ukatu eta
«NORA» dudakor guztiak baztertuz
zugandik gero eta urrunago zaramatzen
bide ezagun eta zabaletik
abiatu zaren horretaz. Zutaz.
Hilobietako pake eraile eta ziurrean
ohea eta maitalea
ezarri duzun horretaz.
Tontoak erregetzaz koroiatzen dituzten
herri arrotz eta total bateko
biztanle zaren horretaz. Zutaz.
Zizareen eboluzioko gurdira
igo eta ezerezaren lasaitasuna
atsegin duzun «chica» horretaz.
NESKA izatea a la m... bidali duzun
horretaz. Zutaz.
«Sí, chica», kaka zuretzat.

ENE MAITEARI

Denbora iheskorren zumardiari
kendu dizkiot
arimako erlojuaren
segunduen taupadak,
eta haizean eseri naiz
zurekin
bioleta eta urdinezko bankuetan
nire eskua laztanki
zurean.

Megatoizko bonba baten danbadak
jaurtiki gaitu
hauts radioaktiboen sabelera,
ortzadarraren koloreak
lotan zeuden
antzinako ibaiaren
ubarkara.

Eta ibaiaren hango ertzean
berriro jaio naiz
zurekin eta zugandik,
sensazio hutsaren hutsunean,
heriotz zaharra bazterturik
itxuraldatze ametsen
zilbor esteak betirako
lotzen gaituen erreinuan.

Jainkoen arnasa irensten duen
ixiltasun leuna
paseiatzen den izadi berrian
geratu naiz zurekin,
misterioaren hatzak
bultzatzen dituen
lainoan boulebarretan,
GU deritzan kalean,

MAITE ZAITUT izeneko
lanbroaren alaba den
bihotzeko herrian.

Eta eskukada bat itxaso
oparitu dizut
joan gaitzen
uhin berdinen arian,
eraman gaitzan
mugarik gabeko
bioleta eta urdina den
amodiozko ontzian.

ZU ETA NI

Seirak zioen
ordulariak.
Ai ene!
aurrera zihoan
gure Otzaurteko
bidean.

Iluntzen ari zen...
ilunabarra ginen,
itzal eta argi,
ilargi ta eguzki,
ilusioa daroan,
bizitza darion
hitzaren,
hitz betearen
ari xamurrean.

Etxeko ate ezkutua
zabaldu nizun eta
zeure ataria ireki
zenidan totalki
haseran, bortizki
brehalean
arimako iturritik
biok, maitea,
edan genezan.

Ura eskaini nizun
otarrean,
argitzala ene esku
zaztarretan;
ura eman zenidan
jauzian;
udazkena zure begi
ubarketan, esperantzaren
hildoetan.

Zazpirak zioen
ilargiak.
Ai ene!
gurekin zihoan
atzoko Otzaurteko
bidean.

AMODIO GALDU BATI

«Lili Marlene» doinuaz abesteko

Negarra zerion
arratsaldean
txori trixte baten
kantu isilean;
bere maitearen ahoan
entzun omen zuenenan
«utz nazak pakean»!

Haizea zebilen
marru bizian
udazken hostoak
lapurtu nahian;
estalirik gabe aurkitzean
dardarak jo omen zian
txoria kabian.

Hegoak hedatuz
altxa zenean
jiraka zihoan
norantza ezean;
negua zetorrelakoan
luma goxok omen zeuzkan
bere ametsean.

Gaua iritsi orduko
bakardadean
bere baitan zion
pake ezinean:
«Zergatik esan behar zenidan
utz zintzadala pakean
kabi bilutsean?»

Hotzak eta euriak
jo zutenean
loak hartu zuen
xamurki besoan;
armonika isilik zegoan
teila trixteren azpian
lurraren altzoan.

HERIOTZAREN KOLORE EZAK...

Heriotzaren kolore ezak
margotu zidan barrua,
desesperantzaren irriaz,
hegorik gabeko egunsentiaz,
txaluparik gabeko itsasertzeaz.

Izoztutako gorrotozko okarakadak
hertsi zidan eztarria
granitozko hibrido baten eran,
odol eta zotinaren
inzestuzko eztaietan.

Haizeak deserrotutako harkaitz malutek
lehertu zidaten begia
lehen amodioaren zatzadaren modura
ene barneko uztargiaren
kolore guztien hiletan.

Geroaren etorkizun saminak
eten zidan sarea
ene mariñel bihotz lausotuaren eran
nahia eta ilusioaren arteko
ezinezko maitaleen jokuetan.

Eta ene Herriko lurrari
josi nintzaion,
zalantzaren keinuari,
geure arima honen
iheskortasunari.
Ene Herri honi,
ene Herri honi!!!

UDABERRIKO LORAK

Izutiki lapurtzen zioten
eguzkiari
egunsentiaren
begirada totela.
Lotsatiki hedatzen zioten
argiari
lehen maitasunaren
esku luzatua.
Xamurki eskaintzen zieten
neskatxei,
xamurki, arrastiriako
laztan epela.

Oi zuok, nire udaberriko
lora eztiok!!

LAGUN BATI, TRISTEZIAZ

Haize ekaitza kobazuloan
sartu zenean
marmarka eta biraoka
bota zituen, bota
koba barneko izadi
guztiak... eta
bere bihotzaren sakontasuneko
ahots, entzule
hasperen eta biztanle
bakarra bihurtu zen.
Gero, Udaberri batez
zeruak eta lurrak eta
espazio sideralak
oihu garratz eta ozen bihurtu
zirenean...
«Ai ene!» zioen bere baitan,
«Zer da kanpoko guzti hori?
Isiltasuna? Isiltasuna ote?»
Eta nik negar egin nuen zugatik
adiskide!

ERROIZPEKO PAGO BATI

Udaberriko haizeak laztandu,
udako ilargiak kulunkatu,
udazkeneko euri lodiak besarkatu,
neguko ekaitzaren malkoak xukatu
zintuen, zintuen, zintuen...

Zuri, hainbat mendetako
nire Herriko iragan izutiaren
getari,
zuri, gure geroaren, gero iheskorren
zelatari,
zuri, pago, nire bihotzeko askatasun haize
burundiak, uda, udazken, negu eta
udaberri,
zuri, nire Herriaren euri, arnas, pauso
eta malkoak...
maitari.

LAGUN BATEN HERIOTZEAN

Oi zein tristea den
beharrezkoak ez garela
sentitzea, sentitzea...
Erlatibotasunaren
uhin iragankorretan
murgiltzea eta
joatea, joatea...;
itzulerarik gabeko
bide hestu eta etengabetik
ibiltzea, ibiltzea...
azkeneko geltokian
trena betirako
geratzea, geratzea...
Oi zein tristea den
hilkortasunaren eztena
somatzea eta hilkorra
izatea, izatea...
Mugazainaren ontzira
igo eta ertzeko aingurari
lotuta egotea, egotea...
Oinarrizko tristezia
hautsiko duen esperantzari
ahoa ixtea, ixtea...
Bihozkada bakoitzaren
ezpain irritsuak
jostea, jostea...
eta halere bizi garela
esatea, oihukatzea, oihukatzea...

GABA ZEN

Gaba zen
eta ilargia nuen begira.

Gaba zen
eta haizea zebilen
Aitzkorriko muturretik
Aloñako zelaira
bira eta bira.

Haizea eta ni
oihaldendaren baitan,
bata babesaren
bestea askapenaren
bila eta bila.

Kotoi eta nylonezko leihoetatik
sartu zitzaidan
leuntasunaren ferekan
lehena,
mehatxuaren marruman
gero, eta
kremailezko ezpainak
itxi nizkionean
presoaren deihadar unkigarrienean
azkena,
bera, amuranterik iheskorrena.

Gaba zen
eta ilargia nuen begira,
gaba zen
eta haizea zebilen,
baina ez isila.

«Zu eta NI», esaten zidan;
«Ni», berriz, nik nioen
«naiz nire erantzuna».
Ez ohe partaidetuak

ez eraztunak
ez ideiaren eraginak
ez haragiaren eztenak
ez inork, ez ezerk
ez bait du asetzen,
haragikor den bitartean,
izaki bakartiaren
sustraizko bakardadearen
sakontasuna.

Gaba zen
eta ilargia nuen begira.

Gaba zen
eta haizea eta ni genbiltzan
bila eta bila.

BESTEIA

Ene onartutako bakardadean
aurkitu zintudan,
ene izaeraren arrazoin,
ene bihotzaren hedapen,
ene bakardade bakartiaren
giltza, soinu eta zutoin.

Oi zu, zu, zu, BESTEA,
nire NI erren hau
GU bihurtu zenidan edozein,
ene esku luzatuen antsia,
ene ezpain hestutuen irria,
ene lore lehortuen usain.

Oi, zu, zu, zu, BESTEA:
zuri ene kantu izutia:
bakarra izatea bada
zuhaitzaren erroa,
zu, gu, bestea, zara
enbor, adar eta geroa.

Zuri ene krisailuaren
argi xume, itzalkorra,
zuri ene errota zaharreko
ale lurtar, beldurtia,
zuri, BESTEA zaren horri
nire kandelaren ezkoa.

ESPERANTZA IZENeko NESKATXARI

Txalupak hondoa jo zuenean,
algaz estalitako erdoitutako burniek eta
mila berdetako belar ta arrainek
inguratu nindutenean,
orduantxe iritsi zintzaizkidan,
oi zu, eguzki amandrearen
printzea!

Nire lurrak lur jo zuenean,
sabel luzetako zizarek eta
begi gabeko izaki gaukorrek
eutsi nindutenean,
orduantxe heldu zintzaizkidan
oi zu, indar kosmikoaren
erroa!

Nire mendia haran bihurtu zenean,
harkaitz txikituaren adarrek eta
zuhaitz erorien ebakiek
estali nindutenean,
orduantxe etorri zintzaizkidan
oi zu, ur garden guztien
iturria.

Nire bihotza harri egin zenean,
errai ustelduen kiratsek eta
haragi deseginen heltxoek
izutu nindutenean,
orduantxe bideratu zintzaizkidan
oi zu, kanzer hilgarrien
sendakaria!

Nire esperantzak erori zirenean,
hosto lehorraren minek eta
horbela trixtearen indefinitasunak
suntsitu nindutenean,
orduantxe agertu zintzaizkidan
oi zu, ilusioaren sabeleko
hauspoa!

LEGORRETA KO BIZKARRETA ZAHARREAN

Gauak inguratu gintuenean
eta iluntasunak itzalak
sakondu eta luzatu
zizkigunean...
itzala iluntasun egin zenean,
eskuak eskutan,
krisailua baztertu eta
iheskatu antsian
zuhaitz artetik zetozkigun
izarrak harrapatu nahi
genituenean...
orduan, ene maitea, orduan
ez nuen itzalik bihotzean.

Gauaren erraietan ausartiki
arakatu genuenean...
lumigas lotsagabeak bortizki
gauari haragiak
urratu zizkionean...
eskuak eskutan,
jana partaidetu eta
zitararen soinua,
Lili Marlene unibertsal baten
doinu bizikoia
leunki barneratzen
zitzaigunean...
orduan, ene maite, orduan
ez nuen beldurrik bihotzean.

Ardoak, abestiak eta dantzak
kate motz eta halere
etengabe bati josi, josi
gintuenean...
nire eskuak zureak zirenean...
asmoak asmotan
otoitzari ekin eta

Jainkoa banatu beharrean
isiluneak bakardadea hautsi
zuenean...
orduan, ene maite, orduan
aseak dastatu ninduen bihotzean.

SAN JOSE LOREAK

Laster, laster
izango dira
sanjose loreak,
xumeak,
sinpleak,
Tologorriko
lur beltz
maitagarrian,
maite,
zure bihotz
zabaletik
sortuak.

Ez dakit zer egin. Ez dakit zer esan.
Bihotzean min dut. Eta zutaz
oroitzen maizenean, penaz
agortzen zaizkit, hainbat bider
zure iturrietatik edan duten
nire ezpain koloregabe, lehorrak.

Egunero maite izan zaitut,
bizitzako mariñel, ekaitzean,
egunsentiako itxaropenean,
ilunabarreko uzta exkaxean,
gabeko amets ugarian,
Euskadiko ezinezko itsas barean...

Bizitza maite zenuen,
bizitza maite dut.
Eta berpizkundean sinestu arren
hemen nahiago zaitut,
nire ondoan, zure bidetik,
biok, borrokaren sabel mugikor horren
erraietan.

Tologorrik ez du kulparik,
bidetxur latzak ez du errurik.
Mendia maite zenuen,
mendiak maite zintun.
Zu joan zara, ez betiko,
harek iraungo du.
Iragankorrek gara, ez dago bueltarik.

Laster, laster
izango dira
sanjose loreak,
xumeak,
sinpleak,
Tologorriko
lur beltz
maitagarrian,
maite,
zure bihotz
zabaletik
sortuak.

Gaur berriro izandu naiz
Orduinaldeko bidetxurretan.
Ia udaberri da.
Neguko belar trixteak
astindu ditu horixka
koloreak eta tarteka
besarkatzen ditu lehenengo
txibirita txuri, zoragarriak.

Nire eskutan hartu ditut
mutiko batek emanak
eta lurrera bota ditut
banaka, banaka petalo
lehun, maitagarriak.
Oi enea,
nola maite zenituen txibiritak.

Ez naiz xixabila joan, ez.
Mila bider sentitu dut
oihuka datorkidan
mendiko uraren dei gardena.
Iturburuak nahi ditut, bai,
behar ditut iturburuak.
Eta harriz harri, saltoka,
noakizu amiltegitik barru,
leizea aurretik, azkenaldian
dauden malkorrezko hormen
bila, haiek ikuitzean
soma ditzadan kosmik
eraunspen luze,
etengabeak.

Eta Nerbioren urak
jarraiki naute
alde guztietatik,
putzu gardenetan,
haizkirrietatik korrika
doazen ur bihurrietan,
birjintasun desiragarri hortan
eta belarretatik zintzilikatzen ziren
neguko mendiaren
azken izerdi freskagarrietan.
Oi enea,
nola maite zenituen mendiko errekek.

Azkenean heldu naiz azken
hormetara, Urkabustaitzeko
harritza, malkor eta harkaitzetara,
eta ezpainak luzatu
dizkiedanean ez didate
ameskaitzik erantsi
eta setatiro
losindu ditut Tologorri haren
ahizparen sabel basatiak,
iraunkorrek, higiezinak.

Oi enea,
nola maite zenuen harkaitza.

Laster, laster
izango dira
sanjose loreak,
xumeak,
sinpleak,
Tologorriko
lur beltz
maitagarrian,
maite,
zure bihotz
zabaletik
sortuak.

Hilabetea pasa da
eta ez zara nigandik pasa.
Ostiral arratsean joan
natzaizu etzanda geratu
zinen tokira.
Eta haitzurraz belarra eta
lurra urratu ditugunean
ez dut gorrotorik sentitu.
Hantxe zintudan zure
begi zintzo handiak niri so,
hainbat maite zenituen mutikoei
so.
Belarra kengu dugu, maite,
eta lurra, lur beltza,
hurrengo egunean zuretzako,
guretzako egindako
hilarri oroigarria
kulunkatu behar zuen
Tologorri ondoko lur
emankorra,
Beharbide azpiko lur
lotsati, izutua.

Orduinan lo egin dugu.
Kostatu zait. Dantza geldi,
luze batez hasi natzaizu
lourreko amets iheskor
mingotsetan. Zu. Beti zu,
eta etzanda, begiak
aurpegi ertzean, eskuak
lasaiak, belauna
erdi bildua. Zu. Beti zu,
ohe ondoan, Tologorriko
bidean, han bertan,
nire bihotz minduan.
Ez uste, maite,
ez zaitut nire ametsetatik
despeditu, nire bihotzetik
kaleratu, nire ezinjakinezko
etorkizunetik jaurtiki,
agurtu.

Laster, laster
izango dira
sanjose loreak,
xumeak,
sinpleak,
Tologorriko
lur beltz
maitagarrian,
maite,
zure bihotz
zabaletik
sortuak.

OIDUI!

Oidui...
nire Oidui zoragarri
ta trixtea.
Zure hegaletan estrenatutako
arrano beltza
busti zenidan, busti...
desitxuratu ta desegin.

Berriro eskainiko dizut,
besarka dezazun,
besarka eta fereka,
amorante xamur,
zintzo, xume eta lirain,
amorante Oidui.

SIRIMIRI

Sirimiri, sirimiri...
zergatik etsai,
etsai busti
tratatzen banauzu
emeki?

Sirimiri, sirimiri...
etsai pizti?
ez noski, sirimiri,
nire lur honen
abesti.

EUSKARA

Zuri,
NONGO, NONDIK eta NORA
gabeko horri!
Zuri,
urik ta arnasarik gabe
itotzen ari zaren
horri!
Ibai baten misterioa
iturburuaren gardentasuneko
freskotasunean datza...
Herri baten misterioa
bere historiako hildo sakonetik
doa, doa, doa...
Nire herriaren misterioa
nire arimako iturburuetan
euskara, euskara, euskara
ari da
oihuka, oihuka, oihuhuhuhuhuhuhuhuhu-
kaaaaaaaaaa!

ATAUNGO MENDIETAN

Arastortzeko zumarra eroria
haize haserretuaren lekuko
ixil eta penatua...

Arastortzeko haize basatia
hodei erdituen ate itxia...

Arastortzeko artzain zaharra,
bakardade guztien esku luzatua,
gure bihotz urratuaren
mintzo trixte ta irria.

ZURI

Urte berrirako bertsoa
hutsik doakizu, lagun,
hutsik...
baina geroari begira,
zuk bete dezazun
nire herri honen
errai gezia,
nire herriaren arima.

TXINDOKI AZPIKO AUSOKOITZEN

Mendeen begiak begira ditudanean...
nire herriaren arrokeri xumea sentitzen dut.
Lurraren lurtasunari atxikitzen natzaionean...
nire erroen erroa dastatzen dut.
Eta sakonki maite zaitut, herri,
ama ta maitale,
musu ta fereka,
nire jatorri ta geroa.

OKABEN

Pagoaren erraiek
txingarra jario
dutenean...
hitzez hitz,
itoka
barneratuko nauzu
Hilarrita,
neure herri,
baina ez hila,
arrano beltzaren kabi,
zeru, haize,
ur, hezur eta lurra.

ASKATASUNARI

Zuri, edonongo gizonari...
Haizea ibaiaz maitemindu zenean
hodei bat erregalatu zion...
baina ez zitzaion lotu eta
aske jarraitu zuen...
haizearen haize,
boteretsu, bare,
gogor, bigun... baina
libre, ez morroi,
eta haize!

MENDIKO JAINKOA

Nire neurriko egin nahi zintuzket,
mugatua, buztin eta suzko
metroerdiko jainkotxo
maneiagarria.

Oi, zu, mendiaren Mendi!
nire errai kixkalien
sakonera freskoa;
disko ta kasettetan
sartu ezinezko
euri setatsuaren
musika ixil, ferekakorra,
trumoi ozenaren
oihartzun eta oihua.
Oi zu, Haitzpeleko Jainkoa!

LAINOAREN SEMEAK

Ilargiaren bila
zabiltzan hori,
tori nire kriseilua!
Lainoaren seme garenoi
aski zaigu aurrekoaren
aztarna,
lagun urkoaren eskua!

ARRANOARENA

Zaldi ustelaren ondora lurreratu zenean
zioen arranoak putreari
«Tira, saia zaitetz hegaz».
Putreak ulertzen ez zuelarik...
«Alu hori! Sabela betea daukat»,
esan zion, «eta ez dut nahi...»
eta hilak jaten, zuen jarraiki.
Gailurrerantz jo zuen arranoak,
bere bakardadearen erromes,
ulergaitz,
baina arrano eta
bizien bilakari!

ARALARREKO EGUNSENTIAN

Lainoaren hegalek
inguratzen zaituztenean
sabel kosmiko baten
magalaren besarkada bustia,
fereka trixtea,
eskaintzen dizute: daukatena.
Zergatik negar egin?

OLTZAKO EGUNSENTIAN

«Lili Marlene» doinuaz kantatzeko.

Goiko harkaitz haietan
egunsentian,
lehen iguzkiarekin
argi izutian,
ene bihotzaren barnean
zaitut, maite, esnatzean
zutaz oroitzean.

Eskuak eskutan
biok batera,
Oltza zelaietan
iturri aldera;
ene belardien artean
zaitut, maite, ametsean,
eguzki lorean.

Burgalaitz aldetik
Pin Pil gainera
pago eta horbela
genuen begira.
Ene begi urdinen ninia
zaitut, maite, hain ezitia,
basoen irria.

Haizeak dakarkit
zure irudia,
haien hegaletan
zukanako antsia;
ene geroaren haria
zaitut, maite, ikusia
amets beldurtia.

NAHI TA EZIN IZAN DUEN HERRIAN

Ihintza esnariak
belarraren ezpainak
xukatzen dituenean
ez nuke irririk
ez baneuka
Herririk.

Bota zapaltzaileak
harrespil-jainkoak
uxatzen dituenean
ez nuke haserrerik
ez baneuka
Herririk.

Telebistaren hotsak
arimaren lotsak
baztertzen dituenean
ez nuke malkorik
ez baneuka
Herririk.

Euskaldun ezpainak
hizkera arrotzak
jario dituenean
ez nuke intziririk
ez baneuka
Herririk.

Espetxeko burniak
gazteriaren begiak
mututzen dituenean
ez nuke oihurik
ez baneuka
Herririk.

**Heriotzaren griñak
aberriaren miñak
izozten dituenean
ez nuke heriotzarik
ez baneuka
Herririk.**

**Boterearen itzalak
ikurrin baten printzak
deusezten dituenean
ez nuke ni ere kuasik
ez baneuka
Herririk.**

ANTZIÑEKO ETENETA HERRIAN, 1983

Izotz gaineko izpi hegalari,
atzo gabeko amandre biguin,
ene haragi ustelaren sari...
oi itxaropen maitari, artzain.

Doan uraren haize ta ertza,
itsas ororen apar ta uhain,
nire iturri zenaren kezka...
oi itxaropen maitari, artzain.

Orain iheskor, agian amets,
bihar izuti zekenen zutoin,
iraun irrien arrago trakets...
oi itxaropen maitari, artzain.

Izar galduen bide, beilari,
bihotz suntsituen begi urdin,
gero gabeko geroen hari...
oi itxaropen maitari, artzain.

Antsia, nahia, ardo miketza,
hildo ezinen lur, lera ta ernai,
itzal uxakor guztien kezka...
oi itxaropen maitari, artzain.

AURKIBIDEA

Beldur naiz	7
Mugatua	10
Oi zu, heriotz!	11
Horbela ez du hitzik esaten	13
Aski	15
Chick Corea-ren jazz entzutean	17
Haizeari hegoak... ..	19
Paradisu galduarena.....	20
Si, chica!	21
Ene Maiteari	22
Zu eta ni	24
Amodio galdu bati	26
Heriotzaren kolore ezak... ..	28
Udaberriko lorak	29
Lagun bati, tristeziak	30
Erroizpeko pago bati	31
Lagun baten heriotzean.....	32
Gaba zen	33
Bestea	35
Esperantza izeneko neskatxari	36
Legorretako bizkarreta zaharrea.....	37
San Jose Loreak.....	39
Oidui!	44
Sirimiri	45
Euskara	46
Ataungo mendietan	47
Zuri	48
Txindoki azpiko ausokoitzen	49
Okaben	50

Askatasunari	51
Mendiko Jainkoa	52
Lainoaren semeak	53
Arranoarena	54
Aralarreko egunsentian	55
Oltzako egunsentian	56
Nahi ta ezin izan duen herrian	57
Antziñeko eteneta herrian, 1983	59